

Materia eta makinak NATURA 6

Sailkatu indar mota bakoitza dagoen taldean.

Plastilina modelatzea

Pilota bat lurrera
erortzea

Imanak klipa erakartzea

Puxtarri bat hatzaz
jotzea

Zabua bultzatzea

Sagarra zuhaitzetik
erortzea

Haizeak itsasontzi
baten belak mugitzea

Ukipen-indarrak

Urruneko indarrak

1. Zergatik aldatzen da materia?

- ☐ Materia aldaezina da.
- ☐ Indar bat aplikatzen zaiolako.
- ☐ Energia trukea dagoelako.

2. Egoeraz, posizioz edo itxuraz aldatzea, nolako aldaketak dira?

- ☐ Aldaketa kimikoak.
- ☐ Aldaketa fisikoak.
- ☐ Erreakzio kimikoak.

3. Nola deitzen zaio tenperatura ezberdinean dauden objektuen artean modu naturalean transmititzen den energiari?

- ☐ Energia kalorifikoa.
- ☐ Beroa.
- ☐ Energia zinetikoa.

4. Beroarengatik, tamaina-aldaketak gerta daitezke?

- ☐ Ez, tenperatura-aldaketak da bakarrik.
- ☐ Ez, beroak posizio aldaketak baino ez ditu eragiten.
- ☐ Bai, dilatazioak gerta daitezke, hau da, objektuak dilatatu edo uzurtu egin daitezke.

5. Materiaren aldaketa kimikoetan...

- ☐ Bi substantzia edo gehiago nahasten dira, eta sortzen diren substantzia berriek beste propietate batzuk izaten dituzte.
- ☐ Objektua osatzen duen materiak egoera, posizioa, edo itxura aldatzen du, baina objektuak osatzen duen materia mota ez da aldatzen.

6. Metalezko barra bat berotzen baduzu, zer gerta daiteke?

- ☐ Egoera aldaketa bat gertatuko da.
- ☐ Dilatazioa bat gertatuko da eta tamainaz handituko da.
- ☐ Dilatazio bat gertatuko da eta tamainaz txikituko da.

7. Solidotzearen bidez...

- ☐ ... solido bat tenperatura jakin batera berotuz gero, likido izatera pasatzen da.
- ☐ ... likido bat tenperatura jakin batera hoztuz gero, likido izatetik solido izatera igarotzen da.
- ☐ ... tenperatura igotzean, likido bat gas izatera pasatzen da.

8. Nola esaten zaio tenperatura jaisten denean, gas bat gas-egoeratik likido-egoerara igarotzeari?

- ☐ Irakitea.
- ☐ Kondentsazioa.
- ☐ Lurrunketa.

9. Zer indar-mota dira grabitate-indarra eta magnetismoa?

- ☐ Urruneko indarrak, objektuak ez direlako ukitzen mugitzeko.
- ☐ Ukipen-indarrak, objektuak ukitu egiten direlako mugitzeko.

10. Zer jokabide du malguki batek indarra aplikatzen diogunean?

- ☐ Jokabide plastikoa, indar egiteari uzten zaionean ez duelako hasierako forma berreskuratzen.
- ☐ Jokabide zurruna, indarra aplikatzean ez delako deformatzen baina hautsi daiteke.
- ☐ Jokabide elastikoa, indarra egiteari uztean hasierako forma berreskuratzen duelako.